

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

LANGILE IKASTOLA

Pako Aristi ezagutzen

"Bizitzeko sistema hori, goizean goiz jaiki, lanera joan eta beste batek esaten duena egiteko, ez det balio. Horrela bizitzekotan suizidatu egingo nintzateke"



Noiz hasi zinen idazten?

11 urterekin hasi nintzen. Bost anai-arreba gara... pobreak ginen eta guk ez genuen bakoitzarentzat opari bat izaten erregetan... opari bat ekartzen ziguten anai-arreba guztientzat eta konpartitu egin behar genuen. 11 urterekin idazteko makina bat ekarri zuten, nire anai-arrebek ez zioten idazteko makina hari kariño handirik hartu. Niri gustatu egin zitzaidan, nire barruan zerbait eragin zuen... Folioa sartu nion eta ni emozionatuta kla, kla, kla, hasi nintzen idazten.

Ikastolan asko aspertzen ginen eta beti genbiltzan ea gure bizitza nola animatu, eta otu zitzaigun panel handi bat jartzea institutuko pasiloan. Hasi ginen gure burutazioekin betetzen eta hori bihurtu zen gure ideiak azaltzeko era. Astero-astero, panel zaharra kendu eta berri bat jartzen genuen. Horrek idaztera animatzen gintuen eta bertan jarri nituen neure lehen ipuinak.

Zein adinekoentzat idazten duzu?

Denentzat. Ba igual idazten ditut liburu gutxi batzuk 8-10 urtekoentzat eta beste batzuk hortik aurrerakoentzat. Baina, normalean idazten dezunean ez dezu pentsatzen norentzat ari zaren, bakarrik idatzi egiten dezu.

Beste lanbiderik ba al duzu?

Ez, ez daukat beste lanbiderik. Ez det nahi, ez zait gustatzen gainera. Goizetan goiz jaikitzea ez zait gustatzen eta ni ohera joaten naiz ordubietan edo hiruretan. Bizitzeko sistema hori lanera joan eta 8 edo 10 ordu sartu eta beste batek esaten dizuna egin etab. Ez, nik ez det balio horrela bizitzeko, ezin det, suizidatu egingo nintzateke, suizidatu.

Momentu honetan zerbait idazten ari al zara?

Bai, orain ari naiz idazten nere hurrengo liburua, udazkenean edo aterako dut, seguraski. Gure gizarteari buruz, hemen nola bizi garen, jendeak ze aspirazio dituen... kontatzen dut bertan. Dene-tik dago, maitasuna, munduan dagoen miseria, hemen dagoen aberastasun ikaragarria, hemen daukagun kontsumismoa...

Zein idazle duzu gustuko?

Nere idazle gustukoak asko dira. Euskaldunak: Jose Mari Iturralde, Bernardo Atxaga, Angel Lertxundi etab. Kanpokoak: Miguel Delibes, Gabriel Garcia Marquez. Mundu mailan ere gustatzen zaizkit adibidez German Gers.

Zerk ematen dio zentzia zure bizitzari?

20-25 liburu idatzi ditut eta neure bizitzak izan duen zentzia liburu horiek idaztea izan da. Aportazio bat izan da, nik barruan daukadan mundua ateratzea eta neure ikuspegia azaltzea neure testuetan. Eta inoiz ez nau kezkatu dirua irabazteak edo gutxi irabazteak, beti izan dut bizitzeko adina eta ez nau kezkatu beste ezerk. Serio bizitzen hasten zarenean, hartu folioa eta egin zerrenda bat zure preferentziekin. Zerbait ez bazaizue gustatzen, ez badago zure preferentzien barruan ez egin zure lagunek dutelako. Zentzu batekin bizitzeko modu bakarra hori da. Bestela interes asko daude gizarte honetan eta presio handia eta zu azkenean presio horren azpian ito egiten zara.

Nondik hartzen dituzu liburuetarako ideiak?

Ideiak buruan daude eta errealitatean ere bai. Nik jasotzen ditut ikusten ditudan gauzak, gertatzen

zaizkidan gauzak. Ni etxetik ateratzen naizen momentuan kamara bat martxan jarrita balego bezala naiz. Tabernan baldin banago adi nago, zer entzungo, zer ikusiko... tabernan zaharrek hitz egiteko joera handia dute, bakardadean bizi direlako. Orduan, zaharrek hitz egiten dute eta gazteak gogoan baldin badu entzun egiten du eta horrela haien istorio asko erreku-peratu ditut nik.

Zergatik aipatzen duzu horrenbeste sexua zure liburuetan?

Sexua ez dut asko aipatzen. Sexuak daukan inportantzia ikusita, bizitzan ez da hainbeste aipatzen, alegia sexua oso inportantea da txikitatik hasi eta hil arte, ojala! Euskal liburuetan gutxi agertzen da, bai lehengoetan baita oraingoetan ere. Ni horrek moskeatu egin izan nau, pentsatzen nuen: hain garrantzitsua den gauza bat zergatik ez da agertzen euskal liburuetan? Eta horren aurka hasi nintzen sexuari buruz hitz egiten eta sexu eszenak deskribatzen.

Irakurle ona al zara?

Bai, irakurle ona naiz eta asko irakurri izan dut. Ni batzuetan kabreatu egiten naiz neure kaxa, eta 18 urterekin edo 19 urterekin kabreatu nintzen eta "me cago en dios", nahikoa det ia besteen liburua irensteaz, orain nik idatziko dut eta beste batzuk irentsi beharko dute nik idatzitakoa. Lehen liburua argitaletxe batera bidali nuen eta handik bi hilabetera deitu zuten argitaratuko zutela esanez. Hura izan nuen bizitzako egunik zoriontsuenetako bat. ||

OIHAN ZABALETA, AÑARBE KALONJE,
MAITANE MORALES, EVA GONZALEZ,
IORITZ PAULIS
Langile ikastola

LIBURU KRITIKA



Eta ni zer?

Egilea: Fernando Morillo
Argitaratzailea: Donostia: Elkar
(Bihotz taupada saila) 2003

Larraitz 16 urteko neska bat da, baina ez da polita eta horrek min handia ematen dio. Usoa, bere ahizpari enbidia dio mutil askorekin ibiltzen delako. Honek arazoak sortuko dizkio.

Modu sinplean idatzita dago eta oso errez irakurtzen da sexu eta sentimenduei buruzko eleberrri hau.

Liburu atsegina da, 13-14 urteko gazteentzat aproposa. ||



Arriskupean!

Egilea: Fernando Morillo
Argitaratzailea: Ibaizabal

Isusko "Mutantearen" klasera-ko Hermanen (institutoko bedela) bizitza ikertzen hasten da. Lana aurkezterakoan bi gizon, Isusko bahitzen saiatzen dira.

Isusko, Maitane, Nerea, Garazi eta Iban, Hermanen txabolara joaten dira. Han kutxa bat aurkitzen dute, barruan Hermanek asmatutako lehergailu baten formula dago.

Fernando Morillori testuak ulerkorak izatea gustatzen zaio. Liburu hau gomendagarria da 12 urtetik gorakoentzat. ||

2. MAILAKO IKASLEAK
Langile ikastola

ikasleen txokoa



Langile ikastolako Santa Barbarako zentroan, ikasleak talde lanean.

Lan kooperatiboa

LAN kooperatiboa ikasleek elkarri laguntzea eta irakastea da. Horretarako, taldeak egin eta hauekako bakoitzak gai baten atal bat lantzen du. Sistema ona da. Alde onetako bat, zalantzak argitzen dituzula da, hau da, zerbait ez dakizunean, galdetu eta argitu dezakezu, zeren eta zuk ez jakin arren, agian zure taldekideek badakite. Gainera, besteei azaltzerakoan, gaia zenbateraino barneratu duzun ikusten da.

Elkar lagundu ere egiten da eta batzuetan gauzak errezago ulertzen dira zure kide batek azalduta, irakasleak azalduta

baino. Besteen pentsatzeko era jakin liteke eta hobeto ezagutu.

Lana pisutsua izaten da batzuetan, baina taldean ondo banatuz gero, errazago egiten da. Azken finean, taldean lan egitea oso ona da, laguntza jasotzen duzu eta zuk ere eman egiten duzu. Gauza berriak ikasten dituzu eta dudak argitu.

Adibidez, aurten, gramatika ikasteko talde kooperatibetan jarri ginen. Izen sintagma ikasteko talde bakoitzak horren atalak banatu zituen: izena, determinatzaileak, adjetiboa eta izen laguna. Ondoren, atal bereko partaideak elkartu

egin ginen eta gaia ondo barneratu ondoren, bakoitza bere jatorrizko taldera itzuli ginen eta taldekideei ikasitako gaia azaldu genien. Gero, beste taldekideek beren gaiak azaldu zituzten eta denek atal guztiak ikasi genituen.


Ondorioz, lan kooperatibak ikasle gehientsuenei laguntzen die eta oso esperientzia ona da, edozeini gomendatuko geniokeena. Sistema hori, gure ikastolan erabiltzen dugu eta oso baliogarria da. ||

2. MAILAKO IKASLEAK
Langile ikastola

Orri honen egileak



❖ GERTAERAK



Modu honetan gelditu zen elorrabiko zubia.

Elorrabiko tragedia

1978ko ekainaren 25eko goizeko hamabiak laurden gutxi ziren. Hernanitik bi kilometrotara, Elorrabiko zubian hain zuzen, ehundaka pertsona San Juan jaietako estropadaz ari ziren gozaten.

Lehenengo txandan Hernani eta Pasaiaiko batelek hartu zuten parte. Ez zen ezer berririk gertatu. Beraz, bigarren txandari ekin ziotenean, elkarren aurka parte hartzen ari ziren batelak jendez beteriko zubi esekiaren azpitik igaro eta, jende guztia zubiaren alde batera joatearen ondorioz, zubiaren kable bat hautsi eta bertako ikuslego guztiak Urumea ibaira erori ziren.

Hau gertatu zenean izugarrizko iskanbila eta egoera dramatikoak sortu ziren. Zoritxarrez, uretara eroritako jendearen artean gazte asko zeuden. Egoera horren aurrean, bateletako partehartzaileak uretara jauzi egin eta zubitik eroritako jendea laguntzen hasi ziren, baita ikuslegoaren artean igeri egiten zekitenak ere.

Jendea eroritako zonaren sakonera bi metrotakoa zen eta hauek euren bizia salbatzeko erreka bazterrera iritsi behar zuten.

Estuasun eta urduritasun handiko momentua izan zen.

Nahiz eta bertan sei pertsonak bizia galdu, beste askok eta askok euren bizia salbatzea lortu zuen.

Guzti honen aurrean, herritar askok bere laguntza eskaintzeaz gain Donostiako suhiltzaileek eta Guardia Zibilak hartu zuten parte.

Tragedia hau zela eta, 1978ko San Juan jaiak bertan behera geratu ziren.

Oraindik ere, Elorrabiko tragediak hernaniarren artean izugarrizko garrantzia du. Horregatik, urteroko San Juan jaietan omenaldia egiten zaie bertan bizia galdu zutenen senideei eta egoera tragiko hori jasan behar izan zuten guztiei. ||

MAIALEN PEREZ IRASTORZA
Langile ikastola



Orduko egunkariak diotenez, 7.000 lagun inguru bildu ziren Juan Bataiatzailea parrokiaren elizkizunetan.